

GOGOEN - BEREIZKETA (II)

III: Norberatzako gogo-bereizketa

A) **Orokorki:** Gerotxoago ikusiko dogu «ALKARTEARI BURUZKO GOGO-BEREIZKETA».

Ala ta guztiz ere, bereizketa bi oneik, au da, bakoitzari ta alkar-teari dagokiezanak, alkar-laguntzearen premiñan dagoz, bata besteari lotuta dagoz.

Au da: alkar-te batek bere gogo-bereizketa egiterakoan, bakoitzari dagokion bereizketa egiñik dagola suposatzen dau. Gogo-bereizketako alkar-te bateko partaideak aurretik oituta egon bear dira euretariko bakoitzaren barru bereizketa egiten, Jainko-naiaren billa ibilliz eta E. Santuaren gidaritzapean biziz.

Eta baita ere, era berean, bakoitzaren bereizketak alkar-te osoaren gogo-bereizketa izan bear dau kontuan, Eleiza bera dalako -ain zuzen be Jaungoikoaren gurariz- Jaunaren Itza ta Kristogan dagoan salbamenezko misterioaren zabaltzaille, aldarrikatzaillle ta berme edo «garantia». Orregaitik Bakarko gogo-bereizketa bat egiterakoan eziñ doguz aaztu «garantia» edo berme orren baldintza nagusi biak: Denboren ezaugarriak ondo aztertuz, Jaunaren Itzagaz eta Elizaren irakatsiekin batera etorri.

Ez daigun aaztu Elizaren fedea dala gure argia ta gure epaillea. Dakigunez, E. Santuak damoskuzan karisma guztiak Eliza batasunean eta maitasunean eraikiteko ta mundua salbatzeko emonak dira. (Kor. 1tik 12,7; 14, 12.26) Ereikite onen aurka zuzenezuzenean doiazan arerioak ba dakigu zeintzuk diran: banakuntza, apurtzea, batasuna desegitea. Eta baita be argi daukagu eziñezkoa dala orrelako jokabide bat Jesusen Espiritutik etortea. (Kor. 1tik. 1, 10-13). Ementxe egongo litzateke «arimaren zuzendari» edo «Director espiritual» esaten genduanaren bete-bearra: esperientziak eta sentipenak egiztatzean, objetibatzean; illun eta naasturik dagoana argitzen eta askatzen lagundu... munduaren ezaugarriak azterturik eta Jainko-Itzean eta Elizaren irakatsietan oinarrituz. *Eta guzti au, eskeintza lez, beartu barik, kontzientziak errespetatuz.*

B) Norberari buruzko gogo-berciketa Loiolako Iñazioaren irakatsietan

Aurten. Loiolan, Uztaillaren 31an -biar illabete- eta Aita Santuaren ordezkari Sukia kardenala zalarik, Loiolako Iñazioaren jaiotzako bosteun urtebetetzearen jai zoragarria ospatu ta bizi izan genduan.

Ari garan NORBERARI BURUZKO GOGO-BEREIZKETAREN maixurik bikaiñeñetarikoa geure Iñazio dogu... Berak bizi izan zitualako bereziketa orretan sortzen diran sentipenezko mota ezbaridiñak eta bila dabillen espirituari dagokiozan gorakada ta beerekadak, poz-naigabeak, argi-illunaldiak.

Berak idatzi euskun «GOGO-JARDUNETAN» daukagu esperientzi orren aberastasuna. Azaldu daiguzan bide orren atal nagusiak.

1.- Barruko askatasuna lortu:

Leenengo ta beiñ esan bear doguna auxe da: bide onetatik zear ibiltea ta barruko benetako askatasuna au lortzea... E. Santuaren doaiak dirala dudarik gabe.

Une onetan bear-bearrezkoa dogu aurre-iritzi edo «prejuizioak» alde batera iztea... bear dan baiño leenago erabagirik artu ez daigun. Onela, Jainkoaren naia edo borondatearen billa ibilteak eta nai ori ondo betetzen aalegintzea. Inazioak diñosku: «*norberaren garaille izatea eta bizitza zuzen eta egoki bat eroatea, oborezko biotzkada barik*» (21,1.) lortu bear-bearrezkoa doguz.

Baiña adi-adi egotea komeni jaku bide onetatik sartu ezkeru, uste dogun baiño leenago gogaituta, asperturik eta nekatuta amaitu ez dagigun. Entzun, anaiok, Inazioaren itz zorrotz eta ezbaibakoak oneri buruz: Ez dogu ezkutatu ta ukatu bear giro onek bear dauan fede ta maitasun garbizko bizitza eroatea sailla be sailla ez danik. Onetarako «MAGIS»-en (23) espirituaren eragiñean sartuta egon bear gara geure gogo-bereizketaren bidean «biotz-zabaltasunez eta askatasunez geure Jainkoaren eta Sortzailearen aurrean aurkeztu gaitez, nai eta askatasun orreik oso-osoan Jainko Aalguztidunari opatuz. Berak bere nai santuaren arabera emon daiskun» (5).

Pertsona guztiak egin bear dabe gogo-bereizketa au, batez be «barru-barruko sentipena ta gozamina izan dagien» (2) euren barruko tengadak eta biotzkadak nondik-norantza dabilzan ikusi ondoren.

2.- Jaunaren itza ta konpromiso ekintzailleak:

Jainkoa bere itz-askatzailearen bidez dator gugana. Guretariko bakoitzak bere baietzaz onartu bear dau itz orren esannaia, berak diñoskuna.

Inazioak «nai dogun mesedea eskatzeko» (91) diñosku. Zer dala-ta? Alde batetik norbera ez dalako gai ezer egiteko salbaziño-arloan eta kristau bizitzari dagokiozan bikaintasun eta zindotasunean; beste alde batetik, gurari biziz eskatu bear dogu nai doguna, Jaunaren naiaren barruan geure pertsona osoarekin sarturik, konpromiso baten erara.

Adi-adi egon Jaunaren Itza noiz entzuteko, eta egon dogun geure eskaria biotz-biotzez Jaunaren nai santu orrenpean egon daiten.

3.- *Aldakuntzarako gertu; prest:*

Jainkoa da betirako bakarra ta alda-eziña. Sortutako beste gauza guztiak (23) aldakorrak dira. Onegaitik gogo-bereizketa egiten diardun gizona prest egon bear da biotzez, iritiz eta ekintzez aldatzeko, orrela agertuko balitzakio Jaunaren guraria. Beste gauza guztien aurrean, aldakorrak diranez, eurretan eziñ dogu ipiñi geure biotzik (23). Baikortasunezko griña-gabetasuna (erderaz: «Indiferencia positiva», santa «indiferéncia»): Onetantxe datza eraiki nai dogun etxeko arri nagusia: Jauna ta Berak gureztat dituen burubide edo asmoak biotzez onartu. Eta beste gauzak... plan edo egitarau onen barruan baletoz. Bai, Espirituaren zurrunbilloan sartu bear gara. Eta guztiok dakigunez... E. Santua da barrikuntza ta sortze-on guztien iturburu. Egon gaitezán, bada, gertu; aldakuntzarako prest.

Aldakuntzarako prest egoteari buruz, auxe diñosku Iñazioak bere «Gogo-Jardunen» sarreran: «Geure barruan sortzen jakuzan eragiñen aurrean eta aukera bat egin bear dogunean... «Begi-bakun» edo atalgabeko begiagaz ikusi bear dogula: «zertarako jaió izan nazarari begiratuz, au da: Jainkoaren aintzarako ta neure animaren salbamenerako» (169).

Atalak dituan begiagaz ikustea, osterá, auxe izango litzateke: leenengo, bitartekoa aukeratu eta gero Jaunaren naia bertara biurtu nai» (169).

4.- *Poz-aldien eta illun-aldien espertentzia:*

Jainkoaren Itzak gure barruan sorrerázo dituan poz eta naigabeei, gora-igote eta beera-jesteei... Poz-aldiak (consolaciones), eta illun-aldiak (depresiones) deitzen dautsoz Iñaziok.

Zer da gure espirituari dagokion poz-aldia?: Gure arima, Espirituaren eragiñez, Jainkoaren maitasunean sutan jarten

jakunean eta, onen ondorio lez, beste gauza guztiak Jainkoagan maitatzen doguzanean... poz-aldi baten barruan gagoz!

Batez be, poz-aldiaren ezaugarri dira: *fedearen, itxaropenean eta maitasunaren getikuntza; Gogoari dagokiozan gauzen guraripean egotea; norberaren animaren donetasuna maitatzea, eta Jainkoaren aurrean lasaitasunez eta bakez egotea*. (316) Azken baten, E. santuaren emaitzak edo frutuak pil-pilka darabilgun poztasunaren esperientzi bat da.

Illun-aldia, ostera, poz-aldiaren azpigatîna da. Onela azaltzen daskuz Inaziok illun-aldiaren ezaugarriak: «Arima illunduta ba lego lez; bere (arimaren) urduritasuna; lurreko ta beko-gauzenganako griña; konfiantzarik-ezera garoiazana; tentaldi ta biotz-ikarak sortzen daskuen larritasuna; itxaropen barik, maitasunik gabe... alpertuta dagon arima, epel dagoana... *illun eta Bere Jaunagandik urruti dagon arima baten antzera*... (317).

Esan daikegu, bada, poz-aldia, aukera baten aurrean, E. Santuak damoskun indarraren agerpen bat dala; eta illun-aldia, ostera, Jaunagandik aldentzen gaituan indar bat dala; eta indar txar ori guregan dabillen txartasunezko espirituaren eragiñaren frutua dala... eta berak -txartasunezko spirituak- damoskuezan aolkuekin ezin dogula biderik aurkitu erabagi egoki eta zuzen bat artu aal izan daigun.

5.- Aukeratze baten bidea: (Oso-osoan Inaziori jarraituz)

Jainkoaren askatasuna errespetaturik... Bere naia ezagutzeko biderik normalena gogo-bereizketa bat egitea da, bertako poz-aldien eta illun-aldien eta bertan dabiltzazan espirituen azterketa-bereizketa sakon bat egiñez.

Zenbat eta sakonagoa izan gogo-bereizketa au, ainbat eta argiago ta garbiago ikusiko doguz txartasunezko espirituaren maltzurkeri ta galbidekeriak. Batzuetan, espiritu txar au, «argizko aingeruan aldatzen da» eta azalean onak dirudien burutapenak

sortzen ditu..., baiña azken baten eta gure izate osoarentzat kaltegarri diranak. (332)

Gure ariman sortzen diran poz-aldiak eta illun-aldiak gogo-bereizketa baten bidez ausnarturik, Jaunaren naia ezagutzera garioiazan esperientzi bat dalako.

Baiña, leenengo ta bein, aukeratzera goiazana gauza on bat edo-ta tengadabakoa izan bear da. (170) («MAGIS-en espirituaren barruan).

Au dala-ta, bururakizun edo pentsamentuen ara-nora edo euren autua aztertzea bearrezkoa dogu, ia txar, oker, edo-ta ona ez dan gauza baten amaitzen bada ikus dagigun (333).

Gogo-bereizte onek geure giza-izateari dagokiozan baldintzak ere kontuan izan bear ditu: bereizketa ori «*lasaitasun giro*» baten egin bear da («Tiempo tranquilo», «*arima espirituaren eragiñen menpean ez dagonean eta bere indarrak ondo ta lasai erabilli aal daikeguzanean*». (177)

Denbora-aldi lasai onetan egin bear dogun gogo-bereizketari buruzko bideari auxe diñosku Iñaziok:

a) Aukeratu bear doguna konkretatu.

b) Elburu nagusia azpimarratu: *Jainkoa ta Bere Aintza, griñen-tengadapean egon ez, eta prest, gertu egon aldatzeko, Jainkoaren Aintzarako ta norberaren animaren salbamenerako agertu leitekezan sentipen barriei jarraitzeko* (179).

c) Eskari bizi bat egin Jaunari, barruko poz-aldi eta illun-aldien zentzuna Bere nai santura zuzenduak izan daitezcan.

d) Aukeratu izan dogun gaiaren zati onak eta txarrak azken elburu nagusiari begiratuz azertu.

e) Geure sen-onari dagokiozan bideetan zear ibilli.

f) Eta, azkenez, aukeratu izan doguna otoitzean aurkeztu Jaunari Berak barriro baieztu dagian (179-183).

IV.- ALKARTE BATEN GOGO-BEREIZKETA:

1.- Zertan datzan eta bere oiñarriak:

Fededunen talde batek, gaurko gizartearen eta gaurko Elizan ebanjelioan oiñarriturik jokatu nai badabe, Jainkoaren aurrean ikusi bearke dabez euren asmo ta ekintzak, Bere nai santuaren billa ibiliz eta, emendik, gaurko Eleizaren ikuspegiari eta gaurko munduko ezaugarriari erantzun egoki bat emoteko gerturik dagozan ala ez.

Taldea osotzen daben bakoitza arduratu bear da -beragandik asita- taldea osatuta gelditu daiten, E. Santuaren eragiñen bideetan zear ibiliz, Jaunari geien atsegintzen jakona billatzen aaleginduz eta ekintzetara eroateko prest egonez.

Batikanoko Ilgn. Batzar Nagusiak bizi-bizirik eskatzen dausku gogoen-bereizketa bideetatik zear ibiltea. (P.C. 2, 4, 15, 23) geure pertsonak eta taldeak barrizatzerakoan. (Iñazio berak, auxe berau egin eban, iru illabetetan zear, talde lez, bere leenengo batzarkideekin, ia guztiak loturik batera jokatu bear ba eben eta menpetasunezko edo obedientzizko botoa egin bear baeben argi ikusi aal izateko).

Oiñarriak lez, onexek zerrendaturiko geunkez:

a) Alkarkide bakoitza, bakoitzari dagokion gogo-bereizketaren jabedun izan bear da. Oituta egon bear da gogo-bizitzako gaietan eta Jainkoaren naiaren billa ibiltan.

b) *Gogo-bereizte au siñismenezko esperientzi sendo, zindo ta sakon bat lez bizi bear da, bai kondatra, bai taldeak eta bai dana Jaungoikoaren eskuetan oso-osoan konfiantza guztiagaz ipiniirik.*

Jainkoa da-ta, ain zuzen be, bere errukizko ta esker-oneko orainaldian alkartea barriztatu nai dauana, bai bere errukizko eta baita bere pastoraltzako lanetan be, munduaren onerako ta Jainkoaren Aintzarako Elizaren barruan gatza ta argi izan daitezkan.

c) Gogo-bereizketa au E. Santuaren argiaren eta eragiñaren menpean egin bear da. Jesusek esan euskun: «Berak eroango zaitue nire egiaren osotasunera» (Jn. 16, 13). Au dala-ta, talde bakoitza ta bertako kideak euren biotzak garbitu bear dabez Jesukristogan eta bere Ebanjelioan oiñarriturik egonaz.

d) Argi dago, oraiñ arte esan dogunagaz, gogo-bereizketa au Jaungoikoari «ABBA», Aitatxo, deitzen eta sentitzen laguntzen deuskun otoi-giro baten barruan bizi bear dana. (Gal. 4, 6; Errom. 8, 15).

2.- Taldeari dagokiozan Psikologi-Gogozko Baldintzak:

a) *Elburu nagusia Jainkoaren naia billatzean eta aurkitzean dago. (1). Emen ez dabe balio norberekerizko ikuspuntuak.*

b) *Oraintxe bertan esan doguna posible izan daiten, talde lez jokatzeko, bakoitzak eta danak euren grina txarretatik garbitu bear dira... artu-emonak beste erabatekoak izan daitezcan.*

c) *Bide onetan zear aurrerantza jarraitu nairik, prest, gertu egon beargara geure iritziak, usteak, naiak eta abar... beste alkarkideak eztabaidatzen eta alboratzen baditue ere. Ementxe ikusiko da zeren billa gabiltzan.*

d) *Norberekerizko jokaerei uko egiñez, besteen iritzien, esperientzien eta emaitzen entzule, ausnartzaille ta onartzaille gogotsuan biurtu bearra dago. Jainko-naiaren billatzaileari zuzen-zuzenean dagokion jarrera dogu au.*

Aro berezi batzuetan, ikerlanez eta inkestaz baliatu bearko da talde ori, korrikan bizi dogun gizadi ta gizaldi onen ekonomiazko, politikazko, filosofiazko ta bertako ideologiazko datoen jakitun egonaz... aal dauanik eta Gogo-bereizketa sakonaren bultzagille on bat izan daiten. Gerotxoago, dato guzti oneik baetik edo baitik pasatu bearko dira.

e) Eta, azkenez, talde bakoitzak kontuan izan beza, Jaungoikoaren Erreiñua zalbatzerakoan, Eleizaren partaide dala, beste askorekin, eta bere zuzenbide orokorren barruan bizi bear dala.

3.- Alkartearen gogo-bereizketari buruzko teknika:

a) Otoitzaren bitartez siñismenezko giro bat sortuazo Jaunaren berbea ta anatena garbi ta ondo entzuna ta ulertua izan daiten.

b) Ondo zeaztu, bereiztu, bear dan gaia. Zuzendariaren betebearra izango da gaiari buruz aal danik eta dato geienak eskuartean izatea. Gaia, taldearen bizitzari ta pastoraltzari loturik dagona izan bearko dau.

c) Otoi-aldi pertsonal bategaz asi E. Santuaren doaiak eskatuz bereizteko aurkezten dan gaiari buruz eta Jaunaren naia onartua izan daiten.

d) Otoi-aldi pertsonal onen ondoren, besteen aurrean, bakoitzak esan dagiala zer sentitu ta bizi izan dauan otoi-aldian aztertzen dan gaiatzaz... Besteak, ezer galdetu barik une onetan, bakarrik entzule lez jokatu dabe.

e) Beste otoi-aldi pertsonal bat Jaunari eskari auxe egiñaz: «Emoidazuz, Jauna, baiezko ta ezezko ezaugarri edo azterrenak bereizten ari garan gaiari buruz».

f) Eta oraiñ letorke, guztiak batzarturik, otoi-giroan E. Santuak eraginda Beronek sentiarazo izan dautseen baiezko ta ezezko ezaugarrien aurkezpena alkarrizketa baten bitartez... **Jainkoaren naiaren billa asi daitezaz.**

g) Alkarrizketa ori eldurik dagonean, erabagiak artzeko prestauko dira. Onena iritzi batekoak izatean izango litzateke. Onela ez balitz, geienen iritzi ta erabagiak guztien aldetik onartzean egongo litzateke kontua.

h) Eta, azkenez, artu izan diran erabagien baieztega gelditzen jaku. Erlijosoen alkarte baten, esate baterako, erabagia artuta ta

baieztuta gelditzen da *nagusiak bere baietza emoterakoan. Ekintza onek, alkarteari, bide zuzenetik doiala damotso ulertzen. (L. G. 12: «Karisma edo E. Santuaren doaien azken-bereizketa Gotzaiñei dagokie»).*

Gero dator E. Santu berberak egiten dauan baiezte-berezia, une orretan fede garbiagoa, itxaropen alaituagoa ta benetako maitasuna alkarkideen biotzetan ixuriz.

Eta, azken baten, «apostolutzari, pastoraltzari edo artzain-lanari» dagokion baiezte jatorku. Au da: *pastoraltzarako gogoa biziazoten jaku, Eleiztar zentzuna sendotu ta zindoti egiten jaku, eta mixiolar lez bizitzera garoiazan indar-berezi bat somatzen dogu geure barnean.*

Onela egiñiko Gogo-bereizketak dakarkiguzan ezaugarriak ikusirik, Jaunari Aintza ta Ezkerrona emotera bultzatuko gainu.

Kepa Agirre